AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5152

EBAZPENA, 2011ko urriaren 21ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko teknikari laguntzaileen kidegoko Natura- eta Paisaia-baliabideen Kudeaketa eta Antolamenduko Goi-mailako Teknikaria aukerako hautaketa-prozesuko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzen duena.

2010eko apirilaren 16ko Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren Aginduaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean karrerako funtzionario izateko 2008. urteko enplegu publikoaren eskaintzako hautaketa-prozesuetako oinarri orokorrak onartu ziren.

Aipatutako deialdiaren oinarriek, 8. paragrafoan, ezartzen zuten eskabideak aurkezteko epea bukatzen denetik gehienez 20 egunera Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak onartu behar zuela hautaketa prozesuan parte hartzeko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda.

Behin eskariak onartzeko epea amaiturik eta eskariak aztertu ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko teknikari laguntzaileen kidegoko Natura- eta Paisaia-baliabideen Kudeaketa eta Antolamenduko Goi-mailako Teknikaria aukerako hautaketa-prozesuko onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartzea.

Bigarren artikulua.– www.ivap.euskadi.net/ope helbide elektronikoan eta ondoren aipatzen diren lekuetako iragarki-tauletan zerrenda honen argitalpena agintzea (aipatutako helbide elektronikoan kontsultak egiteko, NANa eta eskabidearen erreferentzia-zenbakia sartu beharko dira):

a) Vitoria-Gasteiz: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Donostia kalea 1 (Lakua), 01010 PK.

b) Bilbao: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Recalde zumarkalea 18, 48009 PK.

c) Donostia-San Sebastián: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, San Bartolome kalea 28, 20007 PK.

d) Oñati: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, Unibertsitate Zaharra, 20560 PK.

Hirugarren artikulua.– Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legearen 71. artikuluaren arabera, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik hasita hamar egun balioduneko epea ematea, bazterturiko hautagaiei, baztertzeko arrazoia eta zuzentzeko gai diren akatsak zuzen ditzaten.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 21a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.